



## [Cast/Eusk] Si nos negamos no somos / Inor ez gara gure izaerari uko eginez gero

---

JON IURREBASO ATUTXA :: 03/03/2019

Dais vergueza, portavoces de Etxerat. Sabeis que tenemos compas vascos con dos horas de patio enrejado y sin ver a nadie. No mereceis nuestro respeto

### **Castellano**

Acabamos de leer las declaraciones de portavoces de Etxerat del 01-02-2019. Sabemos que no es el sentir mayoritario de Etxerat.

Una primera cuestión. Etxerat habla de los presos/as, iheslaris/as, deportados/as. Adjunta una lista de los represaliados/as politicas vascas. Cómo se entiende que quien pretendía aunar voluntades con víctimas del bando de nuestros enemigos nacionales y de clase, no reconozca a quienes han luchado y luchan por la liberación nacional y social de Euskal Herria, aunque no sean parte del colectivo EPPK.

¿Cómo explicais vosotras y vosotros portavoces de Etxerat algo que hasta hace cuatro dias pretendía ser la asociación mas neutral de la Tierra? ¿Y ni siquiera mencionais a presos y presas políticas vascas que no están de acuerdo con la rendición de la Izquierda Abertzale Oficial y Reformista por entregar las armas al enemigo y aceptar su ley con todas sus consecuencias?

¿Cómo es posible que una asociación de familiares que lo último que preconizaba era opinar políticamente sobre diferentes cuestiones, haga declaraciones, asumiendo una culpa inexistente? ¿De qué se tiene que disculpar una asociación que lo único que ha hecho en términos políticos ha sido defender las legislaciones españolas y francesas?

Repetimos, Etxerat, y antes Senideak, estaba dedicada a la salvaguarda de los derechos humanos fundamentales de sus familiares presos políticos vascos. En su fundamento reivindicaba la normativa legal española del acercamiento a prisiones de Euskal Herria o cercanas a su territorio. Y no más.

Etxerat no ha reivindicado nunca la amnistía precisamente porque no correspondía a lo que pensaban y piensan que es su ámbito de actuación. Y ahora resulta que desean un abrazo fraternal con el sistema que mantiene encarcelados a sus familiares y que continúa ocupando y explotando a Euskal Herria.

Hoy en día reivindican públicamente, su falta de consideracion para otras víctimas antes que los derechos de sus familiares. En todo caso, ya que se han metido en politica (bajo el esquema del enemigo), lo primero que habría que tener en cuenta son los derechos de Euskal Herria. Por enésima vez decimos que nunca habrá salida digna si no hay reconocimiento de la lucha, de la represión, de Euskal Herria, de sus derechos y de los derechos de quien la defienden.

Los portavoces de Etxerat siguen a pies juntillas las bases políticas, ideológicas, sentimentales, de táctica y estrategia de insurrección de los manuales mas archiconocidos de nuestros enemigos.

Hay que saber por qué lucharon nuestros familiares. Y lucharon porque Euskal Herria fuera independiente y socialista. ¿A qué viene decir que nunca debió pasar? ¿Acaso pretendéis hacernos creer que sin luchar hubieramos podido conseguir algo?

¿Qué es lo que no debió pasar/ lo que no debe pasar? Que nos ocupen y exploten o que luchemos ante la ocupación y explotación. ¡Hablad claro! ¡Debíamos luchar o no! ¿Y si no hubieramos luchado el imperio español o el francés nos hubiera reconocido como nación y respetado el estatus que hubieramos decidido a nivel social para nuestro Pueblo?

Hablais del “gobierno vasco”. Es decir, el de vascongadas. Hablais como la EITB, hablais como los enemigos de Euskal Herria. Y repetimos que nos dirigimos a los portavoces de Etxerat. Basta de insultos a Euskal Herria y a todo lo que ha padecido, en clave personal, a nivel de tortura, de negacion del ser vasco, de su propio ser, como, colectivo humano, como Pueblo.

¿De qué futuro, con garantías hablais? Una de dos. O los que hemos luchado (y luchamos) por el Pueblo Trabajador Vasco tenemos que decir que nunca más lo volveremos a hacer, o España y Francia tienen que reconocernos. No hay punto intermedio.

Etxerat habla de la sociedad y de sus representantes políticos. Una vez más decimos que ese no es el pensamiento mayoritario de los y las que componen esa asociación. ¿De qué sociedad hablan? ¿de qué representantes? ¿de qué situación democrática?

Respetamos el dolor de cualquiera, pero Euskal Herria es la sometida y los que pretenden defenderla también. Esa, y no otra, es la primera cuestión a la que en ningún caso se puede renunciar.

Dais vergueza, portavoces de Etxerat. Sabéis que tenemos compas vascos con dos horas de patio enrejado y sin ver a nadie. No merecéis nuestro respeto.

Gora Euskal Herria Askatua eta Sozialista.

## **Euskera**

Etxerateko bozeramaileek 2019ko martxoaren 1ean egindako adierazpena entzun berri dugu, eta badakigu hori ez dela Etxerateko kiderik gehienen sentimendua.

Kontu bat hasteko, Etxeratek presoan, iheslarien eta deportatuen aipamena egin eta euskal errepresaliatu politikoak zerrendatzen ditu, horregatik, ez da onargarria, gure nazio eta klase etsaien biktimekin asmoak batu nahi duenak, Euskal Herriaren askapen nazional eta soziala lortzeko borrokan ibilitakoak eta oraindik espetxeratuak arbuizatzea, EPPK barnean ez badaude ere.

Nolatan halakorik, Etxerateko bozeramaileok, duela lau egunera arte Lurreko elkarterik

neutralena izateko helburua edukirik? Ez al duzue txintik ere esaten Ezker Abertzale Ofizial eta Erreformistaren errendizioarekin bat ez datozen euskal preso politikoez, etsaiari armak entregatu eta haren legea ondorio guztiekin onartu izanagatik?

Nolatan da posible, hainbat gairi inguruko iritzi politikorik ez plazaratzea aldarrikatzen zuen senideen elkarte batek halako adierazpena egiterik, existitzen ez den errua bere gain harturik? Zer dela eta barkamena eskatzeko behar hori, politika mailan espainiar eta frantses legeriak defendatzea izan bada egin duen gauza bakarra?

Berriro diogu, Etxeratek, eta lehenago Senideak-ek, senitarteko euskal preso politikoen oinarrizko giza eskubideak babesten jarduten zuen, funtsean, presoak hurbiltzeko legezko arautegi espainiarra aldarrikatzen zuen, hau da, Euskal Herriko edo gertuko espetxeetara hurbiltzeko aldarrikapena, gehiagorik ez.

Etxeratek ez du inoiz amnistiaren aldeko aldarrikapenik egin, bere jardun-eremuarekin bat ez zetorrelakoan edo ez datorrelakoan. Baina orain anaitasunezko besarkada bat eman nahi dio sistemari, senitartekoak oraindik espetxeratuak dituen eta Euskal Herria okupatzen eta esplotatzen duen sistema izanik, hain zuzen ere.

Gaur egun, senitartekoaren eskubideen aldean, bestelako biktimekiko begirune eza aldarrikatzen dute jendaurrean. Edonola ere, politika arloan sartu direnez (etsaiaren eskemapean), lehenengo eta behin, aintzat hartu beharko lituzkete Euskal Herriaren eskubideak. Enegarrenez diogu, irtenbide duinerako ezinbestekoa da borroka, errepresioa, Euskal Herriaren eskubideak eta bere defendatzaileen eskubideak aitortzea.

Etxerateko bozeramaileek itsu-itsuan betetzen dituzte gure etsaien gidaliburuetakoa (guztiz ezagunak) oinarri politikoak, ideologikoak, sentimenduzkoak eta matxinadarako taktika nahiz estrategia.

Jakin behar da zergatik borrokatu zuten gure senitartekoek, bada, Euskal Herria independente eta sozialistaren alde egitearren. Zer dela eta esatea inoiz ez zuela gertatu behar? Borrokarik gabe zerbait lortzerik izan genukeela sinestarazi nahi ote diguzue?

Zer ez zuen/ez da gertatu behar? Agian okupazio eta esplotazioaren kontra borrokatzea? Argi hitz egin! Borrokatu behar genuen ala ez! Borrokatu izan ez bagenu, inperio espainiarrak edo frantsesak nazio gisa aitortu izan ote gintuzketen? Edo errespetatu izan ote zuketena gizarteak gure Herrirako erabakitako estatusa?

“Euskal gobernuz” ari zarete, hau da, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaikoa besterik ez. EITBren hizkera bera darabilzue, Euskal Herriaren etsaien modura hitz egiten duzue. Berriro diogu, Etxerateko bozeramaileengana zuzentzen gara. Aski dira Euskal Herriarekiko irainak eta jasan duen sufrimendu osoa! hau da, maila pertsonalean, tortura, euskal izaeraren ukazioa, bai eta, giza kolektibo gisa eta Herri gisako ukazioa ere.

Zein etorkizunez ari zarete? Bietako bat: edo Euskal Langile Herriaren aldeko borrokan parte hartu dugunok (eta parte hartzen dugunok) berriro ez dugula egingo esan beharrean gaude, edo Espainiak eta Frantziak aitortu behar gaituzte, eta ez dago erdibiderik, alabaina, ezta barkamena eskatzea ere ez diegu erreklamatu, beste batzuek modu lotsagarrian egin

duten bezala.

Etxerat gizarteaz eta haren ordezkari politikoez aritzen da. Beste behin diogu, hori ez dela Etxerateko kiderik gehienen pentsamoldea. Zein gizartez ari dira? zein ordezkari? zein egoera demokratikoz?

Errespetua diogu edozein pertsonaren atsekabeari, baina Euskal Herria eta haren defendatzaileak dira menderaturik daudenak. Horixe dugu, ez besterik, konturik behinena, eta ezin daiteke inolaz ere bazter batean utzi.

Etxerateko bozeramaileok, lotsa ematen duzue. Badakizue gure euskal kide batzuek inor ikusi gabe bi ordu baino ez dutela ematen burdin hesiz inguraturik dagoen patio batean. Ez duzue gure errespetua merezi.

Gora Euskal Herria Askatua eta Sozialista!

---

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-si-nos-negamos>